

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 69/2016 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, Arabako Ehiza Lurralde Kontseilua eguneratzen duena Nekazaritza Sailaren egitura berriaren arabera

Ehizaren eskumen arloa honako hauek zedarritzen dute: Espainiako 1978ko abenduaren 6ko Konstituzioak, 148.1.11 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuak, 10.10 artikuluan (3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa); eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta haren lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko Legeak, 7.b.3 artikuluan (27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa). Eta, hala, foru organoei dagozkien arrantza kontinentalaren eta ehizaren aprobetxamenduaren araubidea garatzeko eta betearazteko eskumenak.

Arabako Lurralde Historikoko Ehizari buruzko Foru Arauak (8/2004 Foru Araua, zeina 2004ko uztailaren 13an sartu baitzen indarrean) 33. artikuluan xedatzen duenez, Ehiza Lurralde Kontseilua izango da Arabako Foru Aldundiaren sail eskudunaren organo aholku emailea (33.1 artikulua); horrez gain dio kontseilu hori honako hauek osatuko dutela: Araban ehizarekin zerikusia duten elkarten ordezkariak, Arabako Ehizako Lurralde Federazioko ordezkariak, eta lurralde historikoko beste sektore ehizak eragiten dien batzuetako ordezkariak (33.2. artikulua).

Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizaren Legeak, 7. artikuluan, Ehiza Lurralde Kontseiluak ezartzen ditu, adieraziz ezen foru erakundeek erregelamenduz ezarritako osaera eta funtzioak izango dituztela.

Diputatu nagusiaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren egitura onartu zuen, eta, hala, mendiei, florari eta faunari dagozkion eginkizunak eta arloak Nekazaritza Sailari esleitu zitzaizkion.

Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 17ko 40/2016 Foru Dekretuak Arabako Ehiza Lurralde Kontseiluaren osaera eguneratu zuen Nekazaritza Sailaren egitura berriaren arabera.

Edonola ere, natura gune babestuetan dauden ehiza lursailetan ere egiten denez ehizan, beharrezkoa da Ingurumen eta Hirigintza Saileko ordezkari bat Ehiza Lurralde Kontseiluan sartzea kide gisa.

Horregatik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Eguneratu egiten da Arabako Ehiza Lurralde Kontseiluaren egitura, zeina Nekazaritza Sailaren mendekoa baita; hona zer osaera izango duen:

Lehendakaria: Nekazaritza zuzendaria.

Kontseilukideak:

- Mendi Zerbitzuaren burua.
- Ehiza eta Arrantza Atalaren burua.
- Ingurumen eta Hirigintza Saileko ordezkari bat.
- Arabako Ehiza Federazioaren bi ordezkari.

- Ordezkaritza zabalena duten Arabako ehiza esparruen elkarteen bi ordezkari.
- Ehiztarien eta Arrantzaleen Defentsarako Elkartearen ordezkari bat.
- Eusko Jaurlearitza Herrizaingo Sailaren ordezkari bat.
- Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkari bat.
- Nekazaritza elkarteen ordezkari bat.
- Arabako naturazaleen elkarteen ordezkari bat.
- Ordezkaritza zabalena duen Arabako udalen elkartearen ordezkari bat.
- Ordezkaritza zabalena duen Arabako kontzejuen elkartearen ordezkari bat.
- Idazkaria (hitz egiteko eskubidearekin baina botorik emateko eskubiderik gabe): Ehiza eta Arrantza Ataleko teknikariren bat.

Elkarte edo erakunde horietako zuzendaritza organo edo batzarrek beren zuzendariak edo teknikariak izendatu ahal izango dituzte ordezkari, eta Kontseiluaren bilkuretan, gehienez ere, aurreko epigrafean zehaztutako ordezkari kopuruak parte hartuko du.

Ehiza Lurralde Kontseiluko lehendakariak egoki begitantzen zaizkion aholkulari eta gonbidatuak deitu ahal izango ditu, bere kabuz edo Kontseiluko beste kide batzuek proposatuta, aitoritutako prestigioa izateagatik arlo jakin batzuetan.

Bigarrena. Nekazaritza Sailaren organismo aholku emailea izango da Arabako Ehiza Lurralde Kontseilua, ehizarekin zerikusia duen edozein gaitan, eta hauexek izango dira bere eginkizun nagusiak:

Ehizari buruzko urteko foru agindua taxutzeko kontsultak erantzutea.

Aholku ematea Nekazaritza Sailari ehiza aberastasunaren aprobetxamendurako araudiaren inguruan.

Gutxienez, urtean behin bilduko da Arabako Ehiza Lurralde Kontseilua, lehendakariak deituta, ehizari buruz urtero egiten den foru agindu proiektuaren gaineko txostena egiteko ehiza denboraldi bakoitzean; baita Nekazaritza Sailak haren aholkularitza behar duela iritzien dionean ere.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Oraingo Ehiza Lurralde Kontseiluak bere eginkizunak betetzeari utziko dio, Arabako Ehiza Lurralde Kontseilu berria eratzen denetik aurrera.

Bigarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio dekretu hau beteazteko egintzak onar ditzan, eta, hain zuzen ere, Kontseiluko idazkaria izenda dezan, izendaturiko pertsonen absentsia kasuetan haien ordezkari jardungo diren funtzionarioak izenda ditzan eta, nekazaritza elkarteen eta naturazaleen elkarteen artean adostasunik ez dagoenean, haien ordezkari bakoitza hauta dezan haiek bere proposatutako pertsonen artean.

Hirugarrena. Dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 15a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LOPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

ALFREDO SAEZ DE CASTILLO BELTRAN DE OTALORA